

1.- Bi testuotatik, zein da zuzena? Aukeratu

A

- Maiderrri ikusi nion zinemara joaten.
- Eta zu ez al zinen zinemara joan?
- Ez, etxean gelditu nintzen, goxo-goxo.

B

- Maiderrri ikusi nuen zinemara joaten.
- Eta zu ez al zinen zinemara joan?
- Ez, etxean gelditu nintzen, goxo-goxo.

2.- Bi testu hauetatik, zein da jarraibide testua? Aukeratu.

A

Txokolatezko katiluak

Zatitu txokolatea, eta jarri sutan esnearekin, txokolatea urtu arte. Irabiatu arrautzak, gorringoak eta azukrea, eta nahasi txokolatearekin. Banatu nahasketa katiluetan, eta jarri laberako erretilu batean, maria bainuan. Utzi labean ordubetez, 160º-tan. Gero, atera labetik, eta, hoztutakoan, apaindu esne gain harrotuarekin.
www.ikasbil.net (egokitua)

B

Gernikako Arbolaren perfumea sortu dute

Laudioko (Araba) enpresaburu batek Gernikako Arbolaren usaina duen perfume bat sortu du, Euskal Herritik urrun dauden eta etxea oroitu nahi dutenei zuzenduta. Sortzaileak azaldu duenez, Gernikako Arbolaren hostoak beratuz egin dute perfumea.
<http://www.eitb.eus> (egokitua)

3.- Argibideak emateko, bi modu landu dira unitatean. Zein dira bi modu horiek. Azaldu.

Argibideak emateko, bi modu daude:

1.

2.

4.- Irakurri testua, eta erantzun galderei.

Gomazko hezurra

1 Beharko duzun materiala:

Oilasko hezur handi bat.

Estalkidun poto bat, hezurra sartzeko tamainakoa .

Ozpina.

2 Lanari ekiteko:

1) Lehendabizi, kendu hezurrari haragia eta garbitu ondo.

2) Sartu hezurra potoan.

3) Estali hezurra ozpinez.

4) Itxi potoaren estalia.

5) Utzi potoa alde batera, hiru bat egunez.

6) Kontu handiz, atera hezurra, eta garbitu berriro ur txorrotaren azpian.

7) Begiratu eta aztertu ondo hezurra. Zelan dago orain?

3 Zer gertatzen da?

Mediku guztien ahotik entzuten dugu oso ona omen dela esne asko edatea eta esneki asko jatea, kaltzioa gure hezurak gogortzeko garrantzitsua delako. Egia esan, kaltzioak hezurak zurrun mantentzen ditu. Eta gauza bera gertatzen da oilasko hezurretan ere. Ozpina, aldiz, azido ahula da, baina nahiko sendoa denbora luzaroan oilasko hezuraren kaltzioa disolbatzeko. Egun batzuk pasatzen direnean, ozpinak bere lana egiten du eta gomazko oilasko hezurra izango da esku artean duguna.

Karramarro aldizkaria

45. zk. (egokitua)

Zein ataletan ematen dira aholkuak? Adierazi.

1.atalean

2.atalean

3.atalean

Kasu honetan, nola eman dira aholkuak, zerrendan ala azalpen eran, lokailuen laguntzarekin?

Zer lortuko dugu esperimentu hori egiten badugu? Zergatik? Azaldu.

5.- Osatu esaldiak:

- a** Zikinari badagokio zikinkeria, alferrari dagokio
 - b** Ardiari badagokio ardiki, txerriari dagokio
 - c** Zulatzeari badagokio zulaketa, garbitzeari dagokio
 - d** Kamioiari badagokio kamioikada, eskuari dagokio
-

6.- Zein da forma zuzena? Aukeratu

a oilotegia
 oilategia

b lorategia
 loretegia

7. Idatzi hitz hauen laburdurak

- a** telefonoa _____
- b** orrialdea _____
- c** eskuina _____
- d** ezkerria _____